



ERRI PAPER RA

2022ko EKAINA • 55. zenbakia

UEMA sendotzeko deia egin dute Udalerri Euskaldunen Egunean, indarrak batzeko eta euskararen Lurgunea zabaltzeko

Udalerri Euskaldunen Eguna festa eta aldarrikapena uztartu zituen maiatzaren 14an, Seguran, hainbat eragilek elkarlanean antolatutako egitarau oparoarekin.

Udalerri euskaldunek euskararen biziberritzean duten garrantzia nabarmendu zuten **2-3 orr.**



'BERTATIK BERTARA' kanpaina, udan
Hirugarren urtez abiarazi dute UEMAk eta udalek Zerbitzu sektorean euskara ikusaraztea da helburua, bisitariari, ostalariei eta merkatariei eskainitako baliabideekin. **3. orr.**

Kalean, bostetik hiru euskaraz
Euskararen kale erabilera, UEMAko herrietan Oro har antzeko emaitza izan da 2017an eta 2021ean: %61 euskaraz; arnaguneetan egin du behera kopuruak, apur bat. **4-5 orr.**



UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA

UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA SEGURAN IZAN DA AURTEN, LAU URTEKO ETENAREN OSTEAN; FESTA ETA ALDARRIKAPENA UZTARTUZ, UDALERRI EUSKALDUNEN EKARPENA GOGORATU DUTE

UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA IZAN ZEN MAIATZAREN 14AN SEGURAN, GIRO EDERREAN. GOIZEAN UEMAREN BATZAR NAGUSIA EGIN ZUTEN UDALERRI EUSKALDUNETAKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEK, ETA EGUERDIAN EKITALDI INSTITUZIONALA ERE IZAN ZEN SEGURAKO PLAZAN, ERAKUNDE PUBLIKOETAKO ETA EUSKALGINTZAKO ORDEZKARITZA ZABALAREKIN.

Horien babesarekin deialdi argia egin zuen UEMako lehendakari Iraitz Lazkanok: "Euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko bidegurutzean, erdaren erauntsipean, udalerrri euskaldunei sendo eusteko eta euskararen lurgunea zabaltzeko garaia da, beranduegi izan baino lehen. Horretarako ezinbestekoa da indarrak batzea eta, beraz, eskaera zehatza egiten diegu Aturritik Ebroraino Euskal Herrian dauden udalerrri euskaldun guztiei, UEMako kide izan daitezen".

Lehenago, UEMaren ohiko batzar nagusia egin zuten udalerrri euskaldunetatik iritsitako ehun bat alkatek eta zinegotzik. Ordu berean, hitanoari buruzko jardunaldian bildu ziren hainbat euskaltzale, azken urteotan hitanoaren inguruan herrietan abiarazi diren ekimenak ezagutzeko eta aurrerantzean sor daitezkeen egitasmo berriez hitz egiteko.

Ekitaldiaren ondoren, berriz, bazkari herrikoa izan zen, kantu artean, eta arratsaldean bakarrizketa, haurrentzako puzgarriak, antzezlana eta gauera arte iraun zuen festa giro ederra.



BIDEOKLIPA:
Euskara aiden!
(04:30 min)

Bideoklipa, argazki bilduma, bideoak eta egunari buruzko informazio guztia:
labur.eus/UEE2022





ZERBITZU SEKTOREAN EUSKARA AREAGOTZEKO KANPAINA ABIARAZI DUTE UDA HONETAN ere UEMAK eta UDALEK

Udaren atarian, 'BERTATIK BERTARA' kanpainari ekin diote hirugarren urtez UEMAK eta UDALEK, elkarlanean, ZERBITZU SEKTOREAN EUSKARARI DAGOKION GARRANTZIA emateko. HORRETARAKO hainbat BALIABIDE eskainiko ditu UEMAK, eta 200.000 MAHAI-GAINEKO INGURU BANATUKO DITU OSTALARIEN ARTEAN. TELEFONORAKO HIZTEGI LABURRA ere IZANGO DA AURTEN.

Bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi du aurtan ere UEMAK, kanpainan parte hartuko duten udalekin batera. Horretarako, bisitariarentzat eta zerbitzu sektoreko arduradunentzat eta langileentzat hainbat baliabide prestatu ditu, eta ekainaren erdialdetik aurrera erabilgarri izango dira guztiak: udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai-gainekoak, sentsibilizazio bideoak, zerbitzu sektoreko eragileei kanpainaren berri emateko baliabideak, eta bisitariak telefonoetan erabili ahal izateko hiztegia, besteak beste.

Kanpaina benetan eraginkorra izan dadin, dagozkien sektoreetako arduradunak eta langileak kontzientziaztea giltzarria da. Horretarako, aurtan ere kanpainaren berri emanez gutunak eta mezu elektronikoak bidali dituzte udaren atarian UEMAK eta udalek. Azken batean, ber-



Udalerrri euskaldunetako taberna eta jatetxe askotan ikusi ahal izango da uda honetan ere kanpainaren mahai-gainekoa, bezeroei udalerrri euskaldun batean daudela gogoraraziz eta euskaraz hitz egiteko oinarrizko hitzak erakutsiz.

tako hizkuntza ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela gogoratu nahi die kanpainak zerbitzu sektoreko arduradunari. Gutunetan nabarmendu den moduan, "askotan bertako hizkuntza alde batera uzten dugu, bisi-

tariei arreta erdaretatik eskainita. Ez du zentzurik, egindako inkestek eta ikerketek argi erakusten baitute bisitari asko berriaz etortzen dela udalerrri euskaldunetara, eta euskara ikustea eta entzutea gustukoa dutela".

TELEFONOAN ERRAZ IKUSTEKO HIZTEGI LABURRA, ERAKUSLEIHOETATIK EDONOREN ESKURA

UEMAko kide diren udaletako merkatariek eta ostalariek dohainik dituzte zerbitzua euskaraz emateko baliabideak: kartelak, menuak, etiketak, faktura takoak, hiztegiak eta abar.

Horien guztien berri ematearekin batera, euskara zergatik lehenetsi zehaztuz gutunak helarazi dizkiete UEMAK eta udalek merkatariei. Besteak beste, kalitatezko zerbitzua emateko, gure herriko berezko hizkuntza delako, hizkuntza paisaia

ere euskalduntzeko eta euskararen normalizazioan eragiteko.

Merkatariek eta ostalariek horretarako eskura eta doan dituzten baliabideak eskatzeko moduak zehazteaz gain, erakusleihoetan jartzeko kanpainaren irudia ere helarazi zaie zerbitzu sektoreko profesionali.

Eskuorri horretan, bezeroek eta bisitariak telefonoan ikusteko oinarrizko hiztegi laburra prestatu du UEMAK aurtan, berrikuntza gisa.



Euskarazko oinarrizko 13 esamolde biltzen ditu hiztegiak, ingelesez, katalanez, gazteleraz, frantsesez, alemanez eta galegoz.



ale ERABILERA

BOST LAGUNETIK HIRU EUSKARAZ ARITZEN DIRA KALEAN UEMAko HERRIETAN; EZ DA ALDAKETA HANDIRIK IZAN BILAKAERAN, BAINA BEHERAKADA APALA IZAN DA UDALERRI EUSKALDUNENETAN

UEMAk eta Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera neurtu dute UEMAko kide diren herrietan, eta lagin osoa kontuan hartuta, oro har mantendu egin da euskararen presentzia: %61. Udalerririk euskaldunenetan, ordea, beherakada apala izan da azken lau urteotan. Bilakaerak, zehazki, erakusten du herririk handienetan 3,7 puntu igo dela erabilera, 10.000 biztanletik gorakoetan, eta 1,5 puntu jaitsi, berriz, 500 biztanle baino gutxiagokoetan.



Neurketaren arabera, haurrak hurrekin hitz egiten ari direnean entzuten da euskara gehien kalean: %75,2.

Euskararen egoerari buruzko aldagai garrantzitsuenetako bat da kaleko erabilera, eta, hori aztertzeke asmoz, erabilera neurtu dute UEMAko kide diren herrietan, bigarren aldiz. Denera, 93 udalerritan: UEMAko 87 udalerritan eta Tolosaldeko

beste seitan. Udal horietako batzuek urteak daramatzate neurketak egiten, baina bigarren aldia da mankomunitate mailako neurketa egiten dela, eta horrek datuen bilakaera ikusteko aukera eman du lehen aldiz.

2017an egin zen UEMA mailako lehen neurketa, eta orduko hartan baino 17 udalerrri gehiagotan egin da oraingoan. Gainera, elkarrizketa kopuru handiagoa jaso da 2021ean. Guztira, 190.000 solaskide behatu dira, 2017an baino 34.000 gehiago.

IRITZIA: ARITZ ABAROA, UEMAko JARDUNeko LEHENDAKARIA eta Bermeoko ALKATEA

Udalek, administrazioek eta euskalgintzako eragileek elkarrekin aritzeko premia gorria daukagu

Hizkuntzen kaleko erabilerari buruzko neurketa argitaratu du Soziolinguistika Klusterrak. Euskal Herriko erabilera orokorra bere horretan dago (%12,6), baina eremurik euskaldunenetan jaisten ari da euskararen erabilera: laugarren gune soziolinguistikoan hiru puntu jaitsi da erabilera azken neurralditik, eta hirugarren aldiz jarraian gertatu da jaitsiera —2006ko datuekin konparatuta, sei puntukoa da galera—. UEMAk joan den martxoan aurkeztutako neurketaren emaitzak berretsi egin ditu, hortaz,


Euskal Herriko neurketa nagusiak: eremurik euskaldunenetan, laugarren gune soziolinguistikoan, atzeraka ari da erabilera; gainerako eremuetan, oro har, nahiko egonkor dago.

Emaitza horiek ez dira ezustekoa izan UEMArentzat. Denbora da horretaz ohartarazten ari garela: udalerririk euskaldunenetan aldaketa handiak gertatu dira denbora gutxian, eta ez dira izan euskararen erabilera indartzekoak: biztanle mugimendu handiak gertatu dira, gure herrietako euskaldunen ezaugarriak

aldatzen ari dira, erdararen sarbidea areagotu egin da, aldaketa sozialen eragina gero eta handiagoa da... Horrek guztiak zuzeneko eragina du hizkuntza-jardunean. Urteotako azterketek erakutsi digute euskararen ezagutza jaisten ari dela eremu euskaldunenetan, euskaraz eroso moldatzen diren euskaldunak gutxiago direla, eta etxeko erabilera beherantz ari dela. Beraz, espero izateko argazkia erakutsi du kaleko erabileraren neurketak: hirugarren aldiz, behera jo du.

ERABILERA OROKORRA


Datu orokorrei dagokienez, udalerrri guztiak kontuan hartuta, hamarretik sei euskaraz aritzen dira kalean (%61), eta gaztelaniaz ia hamarretik lau (%37). Beste hizkuntzetan, berriz, %2k jarduten dute UEMako kide diren herrietan. 2017an egin zen aurreko neurketa, eta emaitza orokorra ez da aldatu.



Ondorio nagusietan erabilera orokorra aldatu ez den arren, badira mugimenduak aldagaien arabera. Udalerrien tipologia, adina, haurren presentzia edota sexua dira aldagai nagusiak.

UDALERRIEN TIPOLOGIA


Udalerrriak banatuz gero euskaldun proportzioaren arabera, joera hau da: euskaldun gehiagorekin, kalean euskara gehiago (euskararen ezagutza %60-80 den udalerrietan, %54ko erabilera; %90etik gorakoa denean, %84koa). Bilakaera, ordea, hau da: erabilera jaitsi egin da udalerrri euskaldunenetan.



Esaterako, emakumeen erabilera zerbait handiagoa da. Adin talde guztietan gertatzen da, adinekoetan izan ezik. Alderik handiena gazteetan (%6,6) eta umeetan (%4,1) dago.

ADINA

Euskararen erabilera alde handiak dauka adinaren arabera: zenbat eta beherago adinean, erabilera handiagoa. 14 urtez behera, %75 da euskararen erabilera; 15-40 urtetan, %65 inguru; eta 40 urtetik gorakoan artean, %50. Aurreko neurketatik ez da izan alde adierazgarririk adinkako erabilera.



Hizkuntzen erabilera kale neurketa. UEMako udalerrriak eta Tolosaldea. Ondorio nagusiak: labur.eus/KE2021

Jaitsiera horrek, hala ere, ez gaitu etsipenera eta paralisira eraman behar. Kontrakoa: kontziente izan behar dugu esku artean daukagun erronkatz, eta ekin. Horretarako, batetik, ezinbestekoa da egoerari buruzko diagnostiko argia egitea. Ari gara lan horretan. Kaleko neurketak eman digu beste argazki bat, eta aurki izango ditugu Inkesta Soziolinguistikoaren eta zentsuaren datuak ere. Azterketa horien guztien emaitzak xehe aztertuko ditugu, argazki osoa eduki dezagun eta lanerako abiapuntu erreal bat izan daitezten. UEMA bera ere ari da lantzen udalerrri euskaldunen egoerari buruzko azterketak. Bigarrenik, diagnostiko horren argitan, ekiten jarraitzea

dagokigu. Ekiten jarraitzea, eremurik euskaldunenetan ere badaukagulako zertan eragin, urteotan agerian geratu denez. Egoera ez da arrosa kolorekoa, inolaz ere. Ezinbesteko ditugu udalerrri euskaldunak kontuan hartuko dituzten hizkuntza-politikak; arnaguneak babestu eta bermatu behar ditugu.

Udalerrri Euskaldunen Eguna izan dugu oraintsu Seguran. Elkarlanerako deia egin genuen orduan, eta, kaleko neurketaren emaitzak ikusita, berretsi egin nahi dugu dei hori: elkarrekin aritzeko premia gorria daukagu. Udalerrri euskaldun guztiei dei egiten diegu gure udalerrietan hizkuntza-politikak elkarrekin landu ditzagun, herriz herri ari diren elkarrekin, eta Euskal Herriko



Aritz Abaroa, UEMako jarduneko lehendakaria.

administrazioekin eta euskalgintzako eragileekin elkarlan estuan. Soilik modu bateratuan jardunez lortuko dugu gizartearen kontzientziazioan eragitea, politika aktibo bezain eraginkorrak sustatzea eta, ondorioz, euskararen hedapena eta biziraupena bermatzea.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA EUSKARATZEKO PREMIA



Aitor Elexpuru UEMAREN zuzendaritza batzordekidea eta Berako alkatea, eta Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria, Nafarroako Parlamentuan.

Legea BETETZEKO eta HERRITARREI DAGOZKIEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO, Nafarroako administrazio ELEKTRONIKOA LEHENBAILEEN EUSKARATZEKO BITARTEKOAK JARTZEKO eskatu zuten UEMAK eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtarrilean Nafarroako Parlamentuan. Izan ere, Nafarroako administrazioarekin HERRITARREK egin DITZAKETEN TRAMITE ELEKTRONIKOEN LAURDENAK ere ezin DIRA BIDERATU euskaraz. Udalek eta TOKI ERAKUNDEEK egin DITZAKETENAK, BERRIZ, ez DIRA %3ra ere IRISTEN.

UEMAK eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak agerraldia egin zuten urtarrilaren 19an Nafarroako Parlamentuan. Agurne Gaubeka Behatokiko zuzendariak eta Aitor Elexpuru UEMAKo zuzendaritza batzordekideak eta Berako alkateak nabarmendu zuten, herritarrek 1.434 tramite telematiko egin ditzakete gaur egun Nafarroan, eta horietatik 334 tramitek (%23,29) soilik eskaintzen dute euskaraz egin ahal izateko aukera. Udalek eta toki erakundeek egin ditzaketen tramiteen kasuan askoz larriagoa da egoera, 778 tramite egin baititzakete, eta horietatik 20 baino (%2,57) ezin baitira egin euskaraz. Lehenbailehen egoera bideratzeko neurriak eskatu zituzten.

ESTRATEGIA DEMOGRAFIKOAN EUSKARAREN IKUSPEGIA TXERTATZEKO EKARPENAK EGIN DITU UEMAK

EUSKO LEGEBILTZARRAK OSOKO BILKURA MONOGRAFIKOA EGIN ZUEN maiatzaren 18an, ESTRATEGIA DEMOGRAFIKOARI BURUZ. EUSKO JAURLARITZAK aurkeztutako lan-dokumentua oinarritzat hartuta, zenbait ekarpen egin ditu UEMAK. Izan ere, UEMAK USTE DU HIZKUNTZA-POLITIKAREN IKUSPEGITIK ere GILTZARRIA DELA ESTRATEGIA DEMOGRAFIKOA. HORREGATIK, LAN-ILDOETAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK TXERTATZEARI ere ezinbestekoa IRITZI DIO, eta NEURRI ZEHATZ HORIEK BILTZEN DITUEN TXOSTENA aurkeztu die EUSKO LEGEBILTZARRARI eta EUSKO JAURLARITZARI.



UEMAK ezinbesteko ikusten du estrategia demografikoan ere aintzat hartzea udalerrri euskaldunen egoera, haien garrantzia eta zaurgarritasuna ikusita.

UEMAK egindako ekarpenetan gogoratu duenez, estrategiaren zimendu izango diren oinarriak zehazten ditu Eusko Jaurlaritzaren lan-dokumentuak, baina horien artean ez da agertzen euskararen normalizazioa eta, UEMAREN ikuspegitik, ezinbestekoa da aipatzea. Oinarrietan euskararen normalizazioa gehitzea, euskararen erabilera indartzeko mesedegarriak izan daitezkeen neurriak hartzea eta balizko eragin negatiboak prebenitzea giltzarria da UEMARENTZAT udalerrri euskaldunei eusteko eta haiek garatzeko.

AISIALDIKO HEZITZAILEENTZAKO TAILER BATERATUA SORTU DUTE UEMAK eta OINHERRIK, HERRIZ HERRI eskaintzeko

Hainbat balio partekatzen dituztela ohartu dira UEMA eta OINHERRI, eta horiek sustatzeko asmoz sortu dute tailerra, aisialdiko hezitzaileek hainbat gairen inguruko formazio zehatza izan dezaten. Gainera, UEMAKo kide diren 94 herrietako asko OINHERRI HERRI HEZITZAILEEN SAREKO PARTAIDE DIRA. HEZKUNTZA EZ-FORMALAK, eta BEREZIKI AISIALDIK, JENDARTEAREN OHITURETAN DUEN GARRANTZIA EZAGUTUTA, "HAURTZAROAREN KULTURAREN, PARTE-HARTZEAREN ETA EUSKARAREN BALIOAK EREMU EZ-FORMALEAN SUSTATZEKO" BALIABIDEAK ESKAINIKO DIZKIETE TAILERREAN PARTE HARTUKO DUTEN HEZITZAILEEI.



Oinherriko Maite Azpiaz eta Ainhoa Astiz herri hezitzaileen sareko dinamizatzaileak, UEMAKo lehendakari Iraitz Lazkanorekin eta Irati Odriozola UEMAKo aisialdi arduradunarekin.

Aisialdiko begiraleei ere soziolinguistika edukien eta beste zenbait gai zehatzen inguruko formazioa eskaintzea ezinbestekoa iruditu zitzaion UEMARI duela hiruzpalau urte, gazteentzako udalekuak eta topaketak antolatzeari ekin zionean, eta harrezkero gai horiek landu ditu horietan begirale izan direnekin. Baita udalek antolatutako beste hainbat udalekutan aritzen direnekin ere. Oinherrik ere aisialdiko hezitzaileentzako tailerra ematen duela ohartuta, eta hainbat balio bi aldeek lantzen dituztela ikusita, bat egitea erabaki dute UEMAK eta OINHERRIK. "Guk aisialdi euskaldun, parte-hartzaile, anitz, parekide, ingurumenaren zaintzaile eta herrikoian sinesten dugu, eta tailer honekin hori sustatu nahiko genuke", adierazi dute udaletara bidalitako gutunean. Udalen eskaerak jasota, aurrerantzean aisialdiko hezitzaileentzako tailerrak ahalik eta herri gehienetan ematea da asmoa, herrietan aisialdi taldeekin aritzen direnak formatu ahal izateko. Ahal den neurrian, saioak emateko, parte-hartzaile kopuru txikia duten herriak elkartzen saiatuko dira UEMA eta OINHERRI, beti ere elkarrengandik gertu egonez gero.

ERRENTA AITORPENA ere euskaraz, GEROZ ETA GEHIAGOK



Kanpaina ikusarazteko, errenta aitorpena egin ohi den lekuetarako euskarriak zabaldu ditu UEMAK, udalekin elkarlanean mezua ahalik eta herritar gehienengana iritsi dadin.

Ekainaren 30ean amaituko da 2021eko ERRENTA AITORPENTZAKO KANPAINA, eta aurten ere ERRENTA EUSKARAZ EGITEKO DEIA EGIN DU UEMAK, UDALekin eta beste zenbait erakunde publikorekin elkarlanean. ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINAREKIN, ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA eta HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA BULTZATU NAHI IZAN DA.

Urtez urte, horrelako kanpainen eraginez, gero eta gehiago dira errenta aitorpena euskaraz egiteko hautua egiten duten herritarrak, administrazioa euskalduntzeko ekarpena eginez. Era berean, errenta euskaraz egiteko deialdiarekin, herritarrak kontzientziatzea ere lortu nahi dute UEMAK eta udalek, administrazioarekin erdaraz jarduteko ohitura iraultzeko. Izan ere, zergadunek hainbat bide dituzte errenta euskaraz egiteko, eta modu errazean gainera. UEMAREKIN batera, udalak, foru aldundiak eta zenbait finantza erakunde aritu dira elkarlanean.

Gazteentzako udalekuak, aurten BI ZUTABEREKIN eta INOIZ BAINO PARTE-HARTZAILE GEHIAGOREKIN

UDALERRI EUSKALDUNETAKO GAZTEENTZAKO SALTO! UDALEKUAK EKAINAREN 27TIK UZTAILAREN 3ra izango dira, eta aurten ere IBILTARIA izango da UEMAK ANTOLOTUTAKO EKIMENA: 50 laguneko BI ZUTABE ABIATUKO DIRA, BAT TOLOSATIK ETA BESTEA ETXARRI ARANAZTIK, eta LAUGARREN egunean LEITZAN ELKARTUKO DIRA BI ZUTABEAK.

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta eragile aktibo bihurtzeko helburuarekin UEMAK azken urteotan antolatutako topaketa, ibilaldi eta udalekuetan gazte askok eman dute izena, baina azpiegitura kontuengatik parte-hartzaile kopurua mugatzera behartuta, asko kanpoan geratu izan dira. Horri aurre eginez, aurten kopurua bikoiztea erabaki du UEMAK, eta 100 gazte abiatuko dira ekainaren 27an bi zutabetan, Tolosatik eta Etxarri Aranaztik, Leitzarantz, begiralez eta sukaldariz osatutako lantaldearekin.

SALTO! INERTZIATIK KONTZIENTZIARA

Herritarrak kontzientziazteko ildoaren barruan, Hedatu hezkuntza proiektua abian du UEMAK, ikasleentzako, irakasleentzako eta gurasoentzako baliabideekin, baina gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko hezkuntza araututik kanpo aisialdia lantzea ere giltzarria dela iritzita, udalerrri euskaldunetako gazteak elkartzeko eta sentsibilizatzeko ekimena ere antolatzen



Udalerrri euskaldunetako gazteentzako topaketetan parte hartu zuten zenbait lagun, iazko udan, Lekeition.

du: Salto! Gazte euskaldunei oinarrizko soziolinguistika kontzeptuak helaraztea izaten da asmoa, udalerrri euskaldunetan bizi arren euskararen egoeraz kontziente izan daitezen eta inertziatik kontzientziarako saltoa eman dezaten.

Horretarako, egunez egun eta herriz herriz udalerrri euskalduneri, euskararen arnaguneei eta hizkuntza ekologiar buruzko hainbat tailer izango dituzte, zeharkatuko dituzten herrietako kultura eta nortasuna ezagutzeko saioekin batera.

UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR

UEMA.EUS webgunean ez ezik, TWITTER, FACEBOOK, INSTAGRAM ETA OHIKO SARE BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK INFORMAZIOA, HIZKUNTZA POLITIKARI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ.



Webgunea: uema.eus

Telegram: [UEMAeus](https://t.me/UEMAeus) · Instagram: [UEMA_eus](https://www.instagram.com/UEMA_eus) · Twitter: [@uema_eus](https://twitter.com/UEMA_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz)